

SARRERA

DBH garaian oinarrizkoa da kontuan izatea duten aldaketa garaia eta taldeko erlazioek eta norberaren identitateen definizioak duten garrantzia. Gainera pentsamendu abstraktua garatzera eta praktikan jartzera bultzatzea.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; hurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

ANIMALIEN OLINPIADAK

Euskal herrian animalien erabilpena kirol munduan, oso errotutako ohitura izan da.

Jarduera honetan hausnarketa bat egingo dugu animaliak erabiltzen dituzten gure kirolean.

Animali frogak XXI.mendean

Animaliak erabiltzen direla ezagutzen ditugun frogak zerrendatuko ditugu, ostean frogak hauek gaur egun nonbait egiten diren ikusiko dugu.

Behin frogak eta tokiak identifikatuta, hauen bideo edo irudiak lortuko ditugu eta ondokoa aztertuko dugu.

- Non dago bideo/irudia?
- Noiz ateratakoa da?
- Erabiltzen den animalia espeziea.
- Animaliarri eragin edo behartzen al zaio? Nola?
- Ikusten al da animalia ezerosotasun aztarnarik?

Animaliaren ongizatea

Etxeko animalia eta apustuetan erabiltzen diren animalia asko, belarjaleak dira. Animalia hauek milioika urtetan zehar predatzaileen ehizakiak izan dira.


Predatzaileek, animalia gaixo, ahul eta txikienak ehizatzeke joera dute, beraz belarjaleek beren egoera txarra adieraztea ekiditen dute, ehiztua izateko aukerak jaisteko. Horregatik, belarjaleek ez dute beren egonezina, beldurra, gaixotasuna eta ezerosotasuna adierazteko ahalmenik garatu.

Hau honela izanda zaila da esatea animalia bat gaizki pasatzen ari den ala ez, edo bere ezerosotasun maila zein den. Hala ere badaude zenbait [adierazle](#):

- Min fisiko ikusgarria du (erredura, zauriak, kolpeak...)
- Dardarak.
- Begi pupilak oso irekiak.
- Arnasa hartzeko arazoak.
- Marru edo soinuen ekoizpena (berbalizazioa).

Aurkezpena

Animalien ezerosotasuna neurtzeko eskala bat erabiltzen da, *ikuspenezko eskala analogikoa* (IEA) deritzona, 0tik 10erako puntuaketa egiten du animalia ezerosotasuna ikusten denean. Nahiko subjektiboa da eta 7 puntura arte, animalia ezerosotasuna tartean dago ezerosotasuna, hau da, animaliak ez du adieraziko bere egoera. Honek zaildu egiten du eskala hau erabiltzea.



Datu hauek eskuan izanda, hitzez beste gelakideei aurkeztuko diegu. Bertan animalia ezerosotasun maila erabileraren irudia agertuko da eta aldoan IEA eskala bat, itxura honekin. Ezerosotasun mailari zenbaki bat eman eta adieraziz.

Animalia ezerosotasun maila									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Honekin, ikasleek modu erraz batean animalia ezerosotasun maila erabileraren irudia agertuko da, aldoan irudian gertatzen dena adieraziko da, informazio gehigarriarekin batera.

Adibidea



Bilboko jaiak, 1940. Idi probak.

Animalien ezerosotasun maila

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	

Idizaina, "akuilua" deritzon makil batekin idiari atzeko zatian zulatu egiten dio pisu handiko harria mugi dezan.